

Hortzak Zaintzeko Zerbitzu Komunitarioa

HAURREN HORTZAK ZAINTEKO PROGRAMA

PADI - 2020

**EAEko haurren hortzak zaintzeari buruzko
118/1990 Dekretuaren garapenaren urteko txostena**



AURKIBIDEA

	Orrialea
SARRERA	2
2020KO EKITALDIKO EMAITZAK	
1. Erabilera	5
2. Maiztasuna	9
3. Hortzak zaintzea	11
4. Fakturazioa	16
EAE-KO HAURREN HORTZ-OSASUNA	18
Azterketa epidemiologikoak (1988 / 1998 / 2008 / 2018)	
EGOERAREN ANALISIA	22
ONDORIOAK	24
ERANSKINAK.	
I. eranskina. Erabilera lurralde historikoaren arabera	25
II. eranskina. Erabilera udalerriaren arabera	26


SARRERA.

Eusko Jaurlaritzak 1980ko hamarkadaren amaieran hasi zuen hortz-osasuneko politikak haurren hortzak zaintzeko sistema bat sortzea barne hartzen zuen, eta horren helburua zen hortz iraunkorrak ateratzeko eta heltzeko adinetan haurrok behar dituzten zainketak bermatzea, txantxarraren prebalentzia murriztea eta heldutasunean hortz-osasun eta osasun orokor hobea izateko aukera ematea.

EAEko haurren hortzak zaintzeari buruzko 118/1990 Dekretua argitaratzeak bere funtzio estrategikoa nabarmentzen du, eta Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI) hortzak zaintzeko oinarritzko eta kalitatezko sistema unibertsal gisa definitzen du. Sistema horrek hortzak behar bezala zaintzea ziurtatzen die urtero EAEn bizi diren eta 7 eta 15 urte artean dituzten haur guztiei. Osasun Sailaren aurrekontuaren kontura finantzatzen da, eta Osakidetza dentisten eta sektore pribatuan hitzartutakoen talde handi baten bidez gauzatzen da.

2020ko ekitaldian, 31 urte dira PADI garatzen hasi zela; hots, Eusko Jaurlaritzak, apirilaren 24ko 118/1990 Dekretuaren bidez, haurren hortzak zaintzeko sistema. 1. irudian, aldi honetan arreta jaso duten haurren kopurua grafikoki ikus daiteke.


1. irudia: PADIren ezarpen inkrementala eta garapena 1990-2020 aldian



1988an, azterketa epidemiologikoak erakutsi zuen 14 urteko haurren % 82k txantxarrak zituztela, batez beste lau, eta erdiak baino gehiago tratatu gabeak. Lesio konplexuak zituztenei –batez beste zortzi gainazalera– betirako eragingo zien, oro har, helduen hortzen osasunean. Osakidetza haurren hortzetako arreta bermatuta ez zegoenez, batez ere familiarik behartsuenei gehiago kostatzen zitzairen haurren hortzak zaintzea.

Egoera horri erantzuteko, Osasun Sailak haurren hartz-osasuna esku hartzeko eremu lehentasunezkoztat jo zuen eta, beste neurri batzuen artean, hauek bultzatu zituen: batetik, ura fluorizatze eskema (49/1988 Dekretua) ezartzea eta, bestetik, hartzak zaintzeko kalitatezko sistema bat garatzea, haurrei hartz iraunkorrak ateratzeko eta atera ondoren heltzeko aldiaren aldizkako arreta egokia ziurtatzeko. Osasun-politika horren helburua haurrek hartz osasuntsuak izatea da.

2 irudia: PADIn parte hartzeko eskubidea duten haurren kopuruaren bilakaera



Bariazio demografikoek, funtsean aurreko urteetan izandako jaiotza-kopuruak, zehazten dute 7 eta 15 urte bitarteko zenbat haurrek duten PADIn parte hartzeko eskubidea hurrengo ekitaldietan. 2. irudian, gorako joera ikusten da. 2005ean hasi zen (ikus 1. irudia) eta gaur egun arte jarraitu du; nolana ere, 2018an, xede-biztanleria Euskal Estatistika Erakundearen datuetan oinarrituta zenbatu da (*Eustat, 2018ko urtarrila*). Bada, prestazioa jasotzeko eskubidea duten EAEko eskola-umeen zifra zuzendu egin da; izan ere, aipatu ekitaldira arte, adin horiei zegozkien osasun-txartel indibidualen kopuruaren arabera bakarrik zenbatzen ziren.


Aurreko urteetan, 7 urteko kohortearen haur-kopurua (sarrerako kohortea) handiagoa izan da 15 urteko kohortearena (irteerako kohortea) baino. Ondorioz, PADIn parte hartzeko eskubidea duen biztanleriaren bolumen osoari begiratuta, 21.320 haur gehiago izan ziren 2020an, 2011an baino. 2018ko ekitalditik aurrera hazkuntzarako joera moderatu egin da: 1.000 haur urteko inguru, eta baliteke hurrengo urteetan haur-kopurua pixkanaka murriztea, sarrerako kohortetako biztanleria 15 urte betetzen dituzten irteerako kohortetakoena baino txikiagoa baita (Eustat: EAEko biztanleria, lurralde-eremu, jaiotza-urte, sexu eta aldiaren arabera. 2020ko urtarrila).

PADIn urtero sartzen den xede-biztanleriak programa erabiltzen duten haurren kopurua zehazten du, eta sistemak ekitaldi bakoitzean dituen kostu ekonomikoetan eragin zuzena dauka.

Asistentzia-zerbitzuak:

Hortz-asistentzia Osakidetzako profesionalek eta hitzartutako profesional pribatuek osatzen duten familiako dentisten fakultatibo-talde handi batek ematen du, eta PADI erabili ahal izatea eta onartzea bermatzen dute. Osakidetzaren Hortzak Zaintzeko Zerbitzu Komunitarioa 1990ean diseinatu zen, eta etengabe erabiltzen eta optimizatzen diren administrazio-prozesuak kudeatzen ditu.

- Osasun Sailak gaitutako 994 dentista 825 hitzartutako klinikatan.
- Osakidetzaren 21 dentistak 25 osasun-zentrotan ematen dute arreta
- Kontsulta duten udalerriak: 101, EAEko udalerri guztien (251) % 40.



Urte hauetan, eraginkorrak izan dira, zainketa egokiak sustatzeko, batetik haurrak artatzeko protokolo klinikoak eta, bestetik, hitzartutako dentistek emandako asistentzia kapitazio bidez ordaintzeko sistema.

Emandako arretaren ondorioz – prebentzioa du oinarri eta behar diren tratamendu konpontzaileak aplikatzen ditu –, nabarmen hobetu da gure haur eta gazteen hortz-osasuna. 2018ko azterketa epidemiologikoak agertzen duenez, 14 urteko haurren % 74k ez dute txantxarrik. Adin horretan, 0,56 txantxar izaten dituzte batez beste, eta gainazal kaltetuen batezbestekoa 0,9koa da.


PADIk osasun-emaiza bikainak lortu ditu eta horri nabarmen laguntzen diote ura fluorizatze eskemak eta hortzak garbitzeko ohitura oro har hobetu izanak. Dena dela, ez dugu ahaztu behar aipatu 2018ko azterketa horrek ere agertzen duela 10 txantxarlesiotik 3 tratamendu konpontzailerik jaso gabe daudela 12 eta 14 urterekin.

2020KO EKITALDIKO EMAITZAK.

1. – Erabilera.

4. irudiak grafiko eta zenbaki bidez erakusten du PADI nola erabili zen 2020an, erabili-tako asistentzia-sarearen arabera, bai eta 2011az geroztik izandako bilakaera ere. 2020an, 7 eta 15 urte bitarteko 191.830 ume bizi ziren EAEn. Horietatik **120.301** artatuak izan ziren PADiko kontsultetan.

4. irudia: PADIn artatutako haur kopurua, urtearen eta asistentzia-sarearen arabera




I Taula. Artatutako haur kopuruaren eboluzioa 2011-2020 hamarkadan.

Ekitaldia >	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Osakidetza	8.041	8.023	8.436	8.271	8.474	8.330	7.959	7.853	7.627	5.457
Hitzartuak	100.760	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130	123.259	114.844
Artatuak	108.801	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290	130.983	130.886	120.301
Ez atendituak	61.709	59.557	60.819	60.634	61.678	63.272	65.462	59.753	61.042	71.529
Biztanleria	170.510	174.565	179.800	182.329	185.703	190.618	194.752	190.736	191.928	191.830

2011tik 2020ra, handitu egin da PADIn artatzen dituzten haurren kopurua: 108.801 ziren 2011ko ekitaldian eta 120.301, berriz, 2020koan. Artatutako haurren kopurua handitu egin da (11.500 gehiago), 14.084 haur gehiago artatu dituztelako hitzartutako asistentzian. Aldi berean, 2.584 haur gutxiago artatu dituzte Osakidetza bidezko baliabideekin. Bestalde, 71.529 haur ez zituzten artatu 2020an.

5. irudian, PADIn 2020ko erabilera ehunekoa (kuota) ikus daiteke, bai eta 2011az geroztik izandako bilakaera ere, erabilitako asistentzia-sarearen arabera (Osakidetza edo hitzartua).

5. irudia: Artatutako haurren ehunekoa, urtearen eta asistentzia-sarearen arabera.



II Taula. Erabileraren ehunekoaren eboluzioa: 2011-2020


Ekitaldia	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Osakidetza	5%	5%	5%	5%	5%	4%	4%	4%	4%	3%
Hitartuak	59%	61%	61%	62%	62%	62%	62%	65%	64%	60%
Ez artatua	36%	34%	34%	33%	33%	33%	34%	31%	32%	37%
% artatua	63,81%	65,88%	66,17%	66,74%	66,79%	66,81%	66,39%	68,67%	68,20%	62,71%

2020an, asistentziarako eskubidea duten 100 haurretik 60 hitzartutako dentistek artatu zituzten, 3 Osakidetza dentistek eta 37 PADIren arreta jaso gabe gelditu ziren.

Aztertutako aldiaren Osakidetza artatutako haurren ehunekoaren jaitsiera hitzartutako dentisten sareak konpentsatzen du.

Dena den 2020ko ekitaldian programaren estaldura orokorraren jaitsiera nabarmen bat gertatu da: ehuneko 62,71 bateraino jaitsi da urteko erabilera. Seguruenik CoVid-19 delako krisialdiaren eraginak baldintzatu du dentisten kontsultetara joateko ohiko joera familiengan, bai eta kliniketan ezarri behar izandako prozedurak: besteak beste, jardura klinikoaren etenaldiak, hitzorduen atzerapenak eta pandemiara egokitzeko hartu behar izandako neurri bereziak. Horiek guztiek, batez ere Euskal Gobernuak jardura kliniko martxo eta apirilean etetzeko aginduak, zerikusi handia izan dute 2020ko jaitsiera honetan.

6. irudia: PADiren estaldura-ehunekoaren bilakaera, lurraldearen arabera.



III. Taula. Estaldura-ehunekoaren bilakaera (2011 – 2020)

Ekitaldia >	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
ARABA	61,74%	64,28%	64,13%	66,71%	66,57%	66,18%	65,73%	69,00%	68,35%	62,18%
GIPUZKOA	60,23%	62,89%	62,78%	62,36%	62,01%	63,09%	63,23%	64,59%	64,46%	58,45%
BIZKAIA	66,80%	68,33%	69,09%	69,73%	70,12%	69,54%	68,75%	71,41%	70,75%	65,84%
E.A.E.	63,81%	65,88%	66,17%	66,74%	66,79%	66,81%	66,39%	68,67%	68,20%	62,71%

2020an, nabarmenki gutxitu egin da estaldura hiru lurraldeetan. Aztertutako aldian, hiru lurraldeen arteko diferentziala egonkor mantendu da: beti ere estaldura altuena Bizkaikoa izanik eta, aldiz, baxuena Gipuzkoakoa.

Hurrengo datuek asistentzia-sarearen (Osakidetza edo hitzartua) arabera erabilera erakusten dute.


IV Taula: Osakidetza/Hitzartua banaketa portzentuala zerbitzu-erakundearen arabera. artatutako guztiekiko

	ERAKUNDE SANITARIOA	OSAKIDETZA	HITZARTUA	PADI
1 (a)	DEBA BARRENA - ESI	18,37%	81,63%	100%
1 (b)	BIDASOA - ESI	18,37%	81,63%	100%
3	TOLOSALDEA - ESI	15,37%	84,63%	100%
4	GOIERRI /A. UROLA - ESI	13,88%	86,12%	100%
5	DONOSTIALDEA - ESI	7,72%	92,28%	100%
6	ARABAKO ERRIOXA - ESI	6,05%	93,95%	100%
7	ARABA - ESI	2,71%	97,29%	100%
8	DEBA GOIENA - ESI	2,26%	97,74%	100%
9	OBARAKALDO-SESTAO - ESI	1,87%	98,13%	100%
10	BARRUALDE-G, - ESI	1,06%	98,94%	100%
11	BILBAO-BASURTO - ESI	0,94%	99,06%	100%
12	EZKERRALDE-ENK - ESI	0,53%	99,47%	100%
13	URIBE - ESI	0,17%	99,83%	100%
	E.A.E.	4,54%	95,46%	100%

V. Taula: **PADIren erabilera 2020an, asistentzia sarearen arabera.**

ERAKUNDE SANITARIOA	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUA	PADI	%
URIBE - ESI	20.015	23	13.836	13.859	69,24
DEBA BARRENA - ESI	6.650	825	3.667	4.492	67,55
BARRUALDE-GALDAKAO - ESI	27.762	198	18.437	18.635	67,12
BARAKALDO-SESTAO - ESI	10.356	130	6.820	6.950	67,11
ARABA - ESI	25.913	443	15.930	16.373	63,18
EZKERRA-ENKARTERRI	13.089	44	8.214	8.258	63,09
BILBAO – BASURTO - ESI	25.786	152	16.086	16.238	62,97
DONOSTIALDEA - ESI	31.142	1430	17.090	18.520	59,47
TOLOSALDEA - ESI	6.631	602	3.315	3.917	59,07
BIDASOA - ESI	6.958	745	3.310	4.055	58,28
GOIERRI-UROLA GOIENA - ESI	10.115	773	4.797	5.570	55,07
DEBA GOIENA - ESI	6.053	69	2.985	3.054	50,45
ARABAKO ERRIOXA - ESI	1.360	23	357	380	27,94
E.A.E.	191.830	5.457	114.844	120.301	62,71

7. irudia: Erabilera (Osakidetza/Hitzartua) Erakunde Sanitarioka (2020 ekitaldia)




2020an, zerbitzu-erakunde guztietan gailendu zen hitzartutako asistentzia, Osakidetza baliabideekin ematen denaren aurretik. PADIren arretaren % 95,5 hitzartutako dentistek eman zuten. Gehien erabiltzen diren Osakidetza kontsultak Gipuzkoakoak dira, Debagoienan izan ezik. Bizkaiko eta Arabako hortz-kontsulta publikoek ez dute beren eremuetako erabiltzaileen % 5 ere artatzen. ESI batek ere ez zuen lortu % 75era iristea; alegia, 2013-2020 aldirako Osasun Planeko PADIren urteko estalduraren helburua.

2. – Maiztasuna.

Hurrek, 9 ekitalditan, asistentziarako eskubidea duten adin-tartean (7 eta 15 urte), honela sailkatzen da erabilera-eredua (maiztasuna): «etengabea», haurrak PADI erabiltzen du barne dagoen ekitaldi guztietan; «nulua», haurrak ez du inoiz PADI erabili; eta «aldizkakoa», haurrak eskubidea duen 9 ekitaldietako batean edo batzuetan erabili du, baina ez guztietan.

8. irudia: Maiztasuna 2020an: Erabilera aldaerak kohorteka



Irteerako kohortean (15 urtekoena), 2020an, laurden bat baino gehiago (% 29) estalduraren 9 ekitaldietako bakoitzean joan zen PADIko dentistengana.

2020an, 15 urteko haurren % 94k gutxienez behin erabili dute PADI 7 urtetatik. Horien batezbestekoa (erabilera etengabea gehi aldizkakoa) 6,4 ekitaldikoa izan zen, 9tik.

VI Taula: Maiztasuna 2020an. Erabilera etengabea, aldizkakoa eta nulua

2020 EKITALDIA	BIZTANLERIA	ETENGABEA	ALDIZKAKOA	NULUA
15 urte	21.070	6.109	13.669	1.292
14 urte	21.242	6.603	13.285	1.354
13 urte	21.471	7.262	12.845	1.364
12 urte	22.164	8.082	12.416	1.666
11 urte	21.572	8.473	11.187	1.912
10 urte	21.893	9.498	9.939	2.456
9 urte	21.674	10.095	8.379	3.200
8 urte	21.033	11.170	5.328	4.535
7 urte	19.711	12.205	0	7.506

VII. taulan kohorte bakoitzaren erabilera deskribatzen da aztertutako epean, eta ikusten da nola sistemaren erabilera gutxitzen den haurren adina gora doan heinean. Kasu guztietan, gutxiago erabiltzen dute programa 15 urtekoek 7 urtekoek baino.

VII. Taula: 2011tik 2020rako aldian barne dauden kohorteen erabileraren bilakaera.

Ekitaldiak >	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Kohorte 1996 >	57,64									
Kohorte 1997 >	60,91	60,74								
Kohorte 1998 >	62,65	62,55	60,45							
Kohorte 1999 >	65,14	64,52	62,71	61,51						
Kohorte 2000 >	65,57	66,61	64,65	64,12	61,70					
Kohorte 2001 >	66,24	67,55	66,90	65,76	64,74	62,88				
Kohorte 2002 >	65,71	68,18	68,66	67,64	66,82	65,39	63,40			
Kohorte 2003 >	65,68	67,70	68,44	68,73	68,03	66,55	64,27	63,35		
Kohorte 2004 >	63,56	67,26	67,38	68,90	68,55	67,92	66,41	65,81	62,97	
Kohorte 2005 >		66,61	68,48	68,11	69,05	68,87	67,78	67,93	65,89	58,34
Kohorte 2006 >			66,71	68,43	68,11	68,77	68,35	69,77	67,81	59,97
Kohorte 2007 >				66,59	67,75	68,10	69,02	71,15	69,65	64,44
Kohorte 2008 >					65,69	68,25	67,72	71,15	70,58	64,34
Kohorte 2009 >						64,11	64,70	70,50	70,21	64,3
Kohorte 2010 >							65,54	70,32	69,32	64,80
Kohorte 2011 >								67,75	69,55	63,87
Kohorte 2012 >									67,53	64,17
Kohorte 2013 >										61,92
PADI >	63,81	65,88	66,17	66,74	66,79	66,81	66,39	68,67	68,20	62,71

Irteerako kohorteen estaldura-ehunekoa handitu egin da deskribatutako aldian, eta egonkorra da sarrerako kohortean (2020 urtean ezik).

10-11 urte artean, PADI erabiltzeko joera handiagoa dago; alegia, hortzak ordeztuko bigarren etaparen hasieratik gertu dagoen adinean. 12 urtetik aurrera, urteko azterketara joateko joera berriro pixka bat jaisten dela ikusten da.

Adin nagusiagoko kohortetean PADI gutxiago erabiltzeak 12 eta 14 urteetan tratatu ez diren lesioen ehuneko esanguratsu batek jarraitzea azalduko luke. Hori horrela, 10 hortz lesionatutik 3k konpondu gabe jarraitzen dutela ikusten da azterketa epidemiologikoetan (20. orria).

3. – Hortzak zaintzea.

PADIren protokolo klinikoetan dator behin-behineko hortzetan txantxarra izan duten haur guztiei hagin iraunkorretan fisura-ixtekoak jarri behar zaizkiela. Halaber, arrazoi mediko, biologiko edo soziala dela eta, arrisku-taldean sartzen diren haurrei fisura-ixtekoak jartzen zaizkie gainazal oklusaletan edo mastekatzegainazaletan, prebentzio-neurri gisa.

Emandako asistentziaren barruan daude, halaber, kaltetutako hortz iraunkorretan behar diren prozedura konpontzaileak. VIII. eta IX. tauletan, asistentziaren bolumen globala eta 100 haurreko irudikatzen duen profila agertzen dira.

VIII. taulan, kapitazio bidezko ordainketan sartzen den asistentzia orokorra dakar:

VIII. taula: **PADIren asistentzia orokorra 2020an.**

PADI - 2020	GUZTIRA	PROFILA %
Azterketak	120.301	100,00
Fisura ixtekoak	11.692	9,72
Garbiketak	14.290	11,88
Obturazioak	15.434	12,83
Erauzketak	1.105	0,92
Pulpa - tratamenduak	213	0,18


IX. taulan, traumatismoen edo malformazioen ondorioz ebakortzetan behar den asistentzia osagarria jasotzen da.

IX taula: **PADIren asistentzia osagarria 2020an**

PADI - 2020	GUZTIRA	PROFILA %
Asistentzia gehigarria	1.005	100,00
Obturazioak	366	0,30
Berreraiketak	886	0,74
Apiko-formazioak	28	0,02
Endodontziak	115	0,10
Koroak	24	0,02
Erauzketak	10	0,001
Espazio-mantentzaileak	6	0,001

9. eta 10. irudietan, dela Osakidetza fakultatiboek dela hitzartutako dentistek 2020an emandako asistentzia orokorraren profila eta bilakaera azaltzen dira.

9. irudia: 2020an emandako asistentzia orokorra 100 haurreko, adinaren arabera




X taula: 2020an emandako asistentzia orokorra, adinaren arabera.

Adina>	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	Guztira
Kohorteak >	2013	2012	2011	2010	2009	2008	2007	2006	2005	PADI
azterketak	12.206	13.497	13.843	14.187	13.871	14.260	13.406	12.738	12.293	120.301
zigiladurak	2.774	2.209	1.494	1.094	864	948	774	787	748	11.692
obturazioak	839	1.188	1.315	1.363	1.469	1.769	2.071	2.381	3.039	15.434
erauzketak	92	104	142	162	157	152	138	75	83	1.105
Pulpa-tratam.	11	16	9	16	24	26	26	46	39	213

PADIren protokolo klinikoetan datorren ereduaren arabera eman zaio kohorte bakoitzari asistentzia orokorra, eta adin txikikoek jaso dituzte fisura-ixteko gehien buxaduren gainean. Adinean aurrera egin ahala, ixtekoa/obturazioa erlazioa alderantzikatu egiten da. Gainera, hortz-haginak ateratzeko eta hortzaren pulpako tratamenduak edo endodontziak egiteko oso behar txikia dago adin guztietan.

10. irudia: 100 haurreko emandako asistentzia orokorraren bilakaera 2011-2020




XI.Taula. Asistentzia orokorraren bilakaera: 2011-2020

Ejercicio >	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Azterketak	108.801	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290	130.983	130.886	120.301
Zigiladurak	30.459	25.410	22.600	18.539	19.368	17.689	17.260	16.375	16.876	11.692
Obturazioak	19.862	21.402	21.062	20.185	20.210	20.590	19.999	20.220	19.865	15.434
Erauzketak	541	894	853	995	1.227	1.302	1.367	1.371	1.302	1.105
Pulpa-tratam.	292	430	394	299	372	460	366	355	330	213

2011-2020 aldian, beherako joera izan dute ekitaldi bakoitzean emandako asistentzia orokorraren bolumen osoak eta profilak; nabarmen behera egin ere fisura-ixtekoetan eta zertxobait obturazioetan. Zigiluak ezarpenak 1/3 bateko jaitsiera egin du hamarkada batean (haurren heren batengan jarriak izan dira). Enpasteak aldiz ehun hurreko 15ean ezarri dira.

2020an PADIn emandako asistentzia orokorraren profilak aurreko ekitaldietan izandako bilakaera bera jarraitzen du, eta aldea dago Osakidetzaren sarearen eta hitzartutako kontsulten profilen artean (11. irudia):

11. irudia: 2020an emandako asistentzia orokorra, asistentzia-sarearen arabera.



XII Taula: Asistentzia orokorra, sare publikoa eta hitzartuaren arabera

PADI - 2020	Osakidetza	Hitzartua	GUZTIRA
Azterketak	5.457	114.844	120.301
Zigiladurak	1.353 (24,79%)	10.339 (9,00%)	11.692 (9,72%)
Obturazioak	1.646 (30,16%)	13.788 (12,01%)	15.434 (12,83%)
Erauzketak	76 (1,39%)	1.029 (0,90%)	1.302 (0,92%)
Pulpakoak	67 (1,23%)	146 (0,13%)	213 (0,18%)


Tratamenduen proportzioa ia hiru aldiz handiagoa da Osakidetzan sare hitzartuan baino, txantxarrak izateko arrisku handiagoa duten haurren proportzio handiagoari ematen baitio arreta.

12. eta 13. irudietan, Osakidetzaren kontsulta publikoetan eta hitzartutako kliniketan, hurrenez hurren, emandako asistentzia orokorraren bilakaera azaltzen da.

Ikusi ahal denez fisura- ixtekoen bilakaera azken hamarkadan analizatzerakoan, begien bistakoa da jaiste deigarria bi sareetan. 2020an prebentzio-tratamendu aplikazioaren arteko proportzioa sare publikoko enpastei buruz alderantzikatu da. Izanik ere hau bera 2013an itundutako sektorean gertatu zen.

Aldiz, obturazio ezarpen eboluzioa egonkor mantendu da bi sareetan azken hamarkada honetan. Pulpako tratamenduak eta erauzketak ia garrantzirik gabekoak dira ekitaldi guztietan.


12. irudia: Osakidetzan emandako asistentzia orokorraren bilakaera (%)



XIII. Taula: Asistentzia orokorra sare publikoan (2011-2020)

Ekitaldia >	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Azterketak	8.041	8.023	8.436	8.271	8.474	8.330	7.959	7.853	7.627	5.457
Zigiladurak	4.101	4.152	4.701	3.270	3.760	2.755	3.431	2.741	2.479	1.353
Obturazioak	1.970	2.398	2.709	2.308	2.423	2.203	2.571	2.653	2.270	1.646
Erauzketak	107	137	127	117	117	109	121	148	112	76
Pulpa-tratam.	40	48	93	65	59	84	54	118	112	67

13. irudia: Sare hitzartuan emandako asistentzia orokorraren garapena (%)



XIV. Taula: Asistentzia orokorra hitzartutako sarean (2011-2020)

Ejercicio >	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Revisiones	100.760	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130	123.259	114.844
Selladores	26.358	21.258	17.899	15.269	15.608	14.934	13.829	13.634	14.397	10.339
Obturaciones	17.892	19.004	18.353	17.877	17.787	18.387	17.428	17.567	17.595	13.788
Extracciones	434	757	726	878	1.110	1.193	1.246	1.223	1.190	1.029
Trat. Pulpares	252	382	301	234	313	376	312	237	218	146

XV. eta XVI. taulek PADIn emandako asistentziari buruzko informazioa osatzen dute. Traumatismoen edo malformazioen ondorioz ebakortzetan behar den asistentzia osagarria jasotzen da.

Tabla XV: **PADIn emandako asistentzia osagarriaren bilakaera; 2010-2020**

Tratamenduen kopuruak

Ekitaldia >	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Asistentzia osagarria	1.826	1.635	1.626	1.644	1.636	1.663	1.654	1.572	1.558	1.005
Obturazioak	682	658	623	623	620	542	623	629	612	366
Berreraiketak	1.666	1.401	1.427	1.415	1.413	1.522	1.440	1.384	1.382	866
Apikoformazioak	52	41	23	18	17	23	19	28	17	28
Endodontziak	172	154	158	141	144	143	136	129	134	115
Koroak	49	45	41	58	30	29	36	21	22	24
Erauzketak	35	24	31	17	16	18	18	17	24	10
Tarte - mantentzaileak	10	8	8	13	3	10	4	4	7	6

Portzentaiak

Ekitaldia>	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Asistentzia osagarria	1,68	1,42	1,37	1,35	1,32	1,31	1,28	1,20	1,19	0,84
Obturazioak	0,63	0,57	0,52	0,51	0,50	0,43	0,48	0,48	0,47	0,30
Berreraiketak	1,53	1,22	1,20	1,16	1,14	1,20	1,11	1,06	1,06	0,74
Apikoformazioak	0,05	0,04	0,02	0,01	0,01	0,02	0,01	0,02	0,01	0,02
Endodontziak	0,16	0,13	0,13	0,12	0,12	0,11	0,11	0,10	0,10	0,10
Koroak	0,05	0,04	0,03	0,05	0,02	0,02	0,03	0,02	0,02	0,02
Erauzketak	0,03	0,02	0,03	0,01	0,01	0,01	0,01	0,01	0,02	0,01
Tarte - mantentzaileak	0,01	0,01	0,01	0,01	0,00	0,01	0,00	0,00	0,01	0,005

ARTATUAK	108.801	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290	130.983	130.886	120.301
-----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------

XVI. taulan zerbitzu-erakunde bakoitzean hurrek 2020an jasotako asistentzia orokorra jasotzen da, bai Osakidetza dentisten emandakoa bai hitzartutakoek emandakoa.

XVI. Taula: **2020an emandako asistentzia orokorraren bilakaera, erakunde sanitarioka.**


ERAKUNDE SANITARIOA	UMEAK	ZIGILUAK	%	OBTURAZIOAK	%	ERAUZKETAK	%	ENDOD. T	%
ARABA	16.373	803	4,90	1.687	10,30	242	1,48	17	0,10
EZKERRALDEA	8.258	540	6,54	795	9,63	33	0,40	11	0,13
URIBE	13.859	1.403	10,12	1.029	7,42	100	0,72	7	0,05
DONOSTIALDEA	18.520	1.133	6,12	2.096	11,32	135	0,73	43	0,23
DEBA GOIENA	3.054	264	8,64	486	15,91	17	0,56	4	0,13
DEBA BARRENA	4.492	502	11,18	1.446	32,19	91	2,03	25	0,56
BIDASOA	4.055	291	7,18	648	15,98	44	1,09	30	0,74
GOIERRI - URAOLA G.	5.570	313	5,62	1.155	20,74	30	0,54	4	0,07
BARAKALDO - SESTAO	6.950	1.341	19,29	858	12,35	59	0,85	1	0,01
BARRUALDE	18.635	2.573	13,81	2.671	14,33	155	0,83	31	0,17
BILBAO - BASURTO	16.238	2.110	12,99	1.600	9,85	115	0,71	21	0,13
ARABAKO ERRIKIOA	380	12	3,16	109	28,68	13	3,42	0	0,00
TOLOSALDEA	3.917	407	10,39	854	21,80	71	1,81	19	0,49
E.A.E.	120.301	11.692	9,72	15.434	12,83	1.105	0,92	213	0,18

4. – Fakturazioa

2020ko aurrekontu-ekitaldian, PADIn parte hartzeko **hitzartutako familia-dentistek 4.945.548 euro fakturatu dizkiote Osasun Sailari; 43,06 euro batez beste haur bakoitzeko.**

Kopuru horretatik 4.863.102,29 euro (% 98,3) sistemaren asistentzia orokorrerako egindako kapitazio bidezko ordainketari dagozkio (horren barruan daude hortz-azterketak, fisura-ixtekoak, behar diren prebentzio-tratamenduak, obturazioak, hortz-haginak ateratzea eta hortz iraunkorren pulpako tratamenduak) eta 82.445,71 euro (% 1,7), berriz, asistentzia osagarriaren kontzeptuari dagozkio (ebakortzen eta letagi-nen traumatismoen eta malformazioen ondoriozko beharrezko tratamenduak)

14. irudia: **PADIrako hitzartutako asistentziaren kostuen bilakaera, milioi eurotan**



IX Taula: **Kapitazio bidezko kostuaren bilakaera azken hamarkadan**

Kontu ekitaldia	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
As. Orokorra - €	4.242.419	4.496.699	4.762.590	4.845.719	4.935.137	5.043.695	5.133.398	5.211.226	5.228.433	4.863.102
As. Osagarria - €	149.622	131.542	143.424	149.450	137.855	131.895	125.406	123.304	122.122	82.446
As. Hitzartua GUZTIRA - €	4.392.041	4.628.241	4.906.014	4.995.169	5.072.992	5.175.590	5.258.804	5.334.530	5.350.555	4.945.548
Harren kopurua	100.760	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130	123.259	114.844
€-haur bakoitzeko	43,59	43,26	44,38	44,04	43,90	43,49	43,61	43,32	43,41	43,06
As. renorokorra % kostua	96,6%	97,2%	97,1%	97,0%	97,3%	97,5%	97,6%	97,7%	97,7%	98,33%
As. gehigarriaren % kostua	3,4%	2,8%	2,9%	3,0%	2,7%	2,5%	2,4%	2,3%	2,3%	1,67%

Hitzartutako dentistek asistentzia orokorragatik jasotzen dituzten ordainsariak ez dira aldatu 2009az geroztik. Delako kapitazioa (haur eta urteko tarifaren ordainketa) 2007 urtean bereiztuta izan zen adin koortearen arabera (12 eta 15 urte artean), kontuan hartuta lan-karga handiagoa dakartela haur nagusiagoen patologia aurreratuek.

Hara, gaur egungo kapitazioaren tarifak honako hauek dira:

- 7 – 11 urte tarteko adiekoetan: 39,88 € / haur
- 12 – 15 urte tarteko adinekoetan: 45,49 € / haur

Aldiz, Osakidetzan PADl z arduratzen diren familiako dentistek 236.563,10 euro fakturatu dizkiote 2020ko ekitaldian Osasun Sailari, dagozkien zerbitzu-erakundearen Programa Kontratuen bidez; hots, 43,35 euro batez beste artatutako haur bakoitzeko.

Kopuru horretatik 234.039,67 euro (% 99) sistemaren asistentzia orokorrerako egindako kapitazio bidezko ordainketari dagozkio (horren barruan daude hortz-azterketak, fisura-ixtekoak, behar diren prebentzio-tratamenduak, obturazioak, hortz-haginak ateratzea eta hortz iraunkorren pulpako tratamenduak). Gainerako %1 euro (2.523,43 euro) asistentzia osagarriaren kontzeptuari dagozkio (ebakortzen eta letaginen traumatismo-en eta malformazioen ondoriozko beharrezko tratamenduak).

X. taula: **Asistentzia-sarearen arabera kostuen laburpena**

Asistentzia - sarea →	HITZARTUA	OSAKIDETZA	PADI (GUZTIRA)
Asistentzia orokorra - €	4.863.102,29 €	234.039,67 €	5.097.141,96 €
Asistentzia gehigarria - €	82.445,71 €	2.523,43 €	84.969,14 €
Kostua , guztira	4.945.548,00 €	236.563,10 €	5.182.111,10 €
Artatutako haurrak	114.844 haur	5.457 haur	120.301 haur
Euro / haur	43,06 €	43,35 €	43,08 €
Kapitazioaren kostuaren %-a	98,33 %	98,93 %	98,36 %
As. Osagarriaren kostua %-a	1,67 %	1,0 %	1,64 %


HAURREN HORTZ-OSASUNA.

AZTERKETA EPIDEMIOLOGIKOAK 1988, 1998, 2008 / 2018.

1988an ebaluatu zen lehen aldiz EAEko haurren hortz-osasuna; alegia, hiru hamarkada bete dira 2018an. Harrezkero, azterketa epidemiologikoak egin dira hamar urtez behin, Osasunaren Mundu Erakundeak estandarizatutako metodologiaren bidez, eskola-umeen aho-hortzen osasunaren bilakaera monitorizatzeko. Hori horrela, hobekuntza garrantzitsua izan zen lehen hamarkadan (1988-1998), bigarreanean ere jarraitu zuena (1998-2008).

Aurreko azterketan (2008) emaitza ezin hobeak lortu ziren: gaixotasun-adierazle global oso txikiak eta txantxarrik gabeko eskola-umeen ehuneko handiak. Azterketa horretako ondorioetan jasotzen zenez, «ahalegin izugarria egin beharko da eta baliabide ugari erabili beharko dira osasun-adierazleak hobetzea lortzeko». Nolanahi ere, EAEko haurren hortz-osasunaren IV. azterketa epidemiologikoak (2018) agertu duenez, oro har egonkortsu egin dira hortz iraunkorren osasun-adierazleak, eta hobekuntza nabarmena izan da –estatistikoki esanguratsua– 14 urtekoen kohortean, ia PADIren estaldura amaitzeko adinean.


15. irudia: Hortz iraunkorretako txantxar adierazleen bilakaera (1988-2018)



7 urterekin, hortz iraunkorretako txantxarren adierazlea ia erabat hutsala den heinean mantentzen da (CAOD=0,04). 12 urterekin, 0,46 da CAOD adierazlea; beraz, EAE txantxarren maila txikienak dituzten herrialdeetako bat da, Osasunaren Mundu Erakundearen sailkapenaren arabera.

Nolanahi ere, hona hemen datu esanguratsu bat: 14 urterekin, nabarmen hobetu da CAOD adierazlea –estatistikoki esanguratsua da–; izan ere, 0,9 zen 2008an eta 0,56, berriz, 2018an. Baliook garrantzi epidemiologiko handia dute PADI amaitzeko adinean eta, adierazten dutenez, 100 eskola-umeko 34 txantxar-lesio saihestu dira azken hamarkadan.


16. irudia: Hortz iraunkorretan txantxarrik ez duten haurren ehunekoaren bilakaera:



CAOD adierazlearentzako bezala, 14 urteko eskola-umeetan izan da nabarmenena txantxar-prebalentziaren beherakada. Hala, adin horretan txantxarrik ez duten eskola-umeen ehunekoak % 61etik % 74ra eboluzionatu du.

Hortz iraunkorretan txantxarrik ez duten eskola-umeen prebalentziak agertzen duenez, 2008tik 2018ra doan hamarkadan, 100 eskola-umeko 2 eskola-ume berrik ez zuten txantxarrik izan 12 urterekin, eta 100 eskola-umeko 13 eskola-ume berrik 14 urterekin. Hortz iraunkorretako txantxarren prebalentzia, 7 urterekin, % 2-3ren inguruan egonkor-tu da.

17. irudia: CAOD adierazlearen osagaiak eta bilakaera




CAOD adierazlearen osagaien bilakaeraren analisiak agertzen duenez, nabarmen gu-txiagotu dira txantxar aktiboak 1988-2018 aldian (eremu laranja), eta obturazioen kopu-ruak ez du gora egin (eremu urdina).

Gaur egun, hortz iraunkorretan, «ateratakoa» osagaia oso txikia da (adierazlearen % 2 da, 12 eta 14 urte artean, eta ia hutsala da 7 urterekin).


Nolanahi ere, 1988an zegoen arazoa oro har arindu bada ere, oraindik ere tratatu ez diren txantxar-lesioen ehuneko handia dago: 10 hortzetik 3 txantxardun 12 urterekin eta 10 hortzetik 3-4 txantxardun 14 urterekin. 19. irudian, lehengoratutako (konpondu-tako) hortzen proportzioa ikus daiteke:

18. irudia: Konponketa-adierazlea (KA) 12 eta 14 urterekin, 2018

Indize hau da: CAOren guztizkotik obturatutako hortzen %-a




19. irudia: Konponketa-adierazlearen (KA) bilakaera 12 eta 14 urterekin



Lehengoratzte-adierazleak egonkortu egin dira hamarkada honetan. Gorakada handia izan zen 1988-1998 hamarkadan eta, horren ondoren, egonkortu egin da 1998-2008 aldian. Gaur egun, 12 urtekoen % 72ko lehengoratzte-adierazlea aurreko azterketakori ia-ia gainjarri egiten zaio. Nolanahi ere, 14 urtekoen taldean, murrizketa esanguratsua ikusten da: 2008an lesioen % 72 obturatu ziren; gaur egun, berriz, % 64. Datu horrek murrizketa horren arrazoa are gehiago analizatzea eskatzen du, adin nagusiagoko kohorteak urteko PADI azterketara gutxiago joaten direla islatzeaz harago.


Txantzarren banaketa desberdina, maila sozioekonomikoari dagokionez.

21. irudia: CAOD balioak, eta CAOD maila sozioekonomikoaren arabera



Txantzarren adierazleek nabarmen egiten dute okerrera maila sozial baxuenetan, adin-talde guztietan. Maila sozial aberatsenetako (I-II) eskola-umeek maila pobreenetakoen (IV-V) txantzar kopuru erdia dute.

22. irudia: Lesio metaketa biztanleriaren zati txiki batean (arrisku-biztanleria).



12 eta 14 urtekoen taldeetan, eskola-umeen % 12-15ek dituzte hortz iraunkorretako txantzar guztien % 75-80.

Behin-behineko hortzen osasun-datuak

X. taula: Behin-behineko hortzen osasun-adierazleen bilakaera (1988-2018)

Behin-behineko hortzak	1988	1998	2008	2018
CAOD adierazlea	2,59	0,99	0,75	1,1
Prebalentzia	% 63	% 30	% 24	% 34

7 urteko haurren herenak hortz iraunkorren edo esneko hortzen bat kaltetuta dauka.

Behin-behineko hortzetako txantzarren adierazleak okerrera egiten du 7 urterekin, eta prebalentzia handitu egiten da. Zorionez, egoera hori ez da hortz iraunkorretan ematen; hortz iraunkorren egoerak egonkor jarraitzen du, txantzarren maila oso txikiekin.

EGOERAREN ANALISIA.

PADIren 31 urteko ibilbidea eta gero, ebidentzia epidemiologikoak agertzen du gaitasuna duela haurrak txantxar gutxiagorekin hazten laguntzeko. Bestalde, bilakaerari buruzko datuek eta EAEko eskola-umeen hortz-osasunaren IV. azterketa epidemiologikoak (2018) erdietsitako lorpenak eta hobetzeko aukerak analizatzeko aukera ematen dute.

Azken azterketa epidemiologikoko emaitzen arabera, aurreko urteetan hortz-osasunean izandako hobekuntza moteltzen ari da intentsitateari dagokionez. Hori, bada, logikoa da, 2008ko txantxar maila baxuak direla eta. Nolanahi ere, gaur egun berdin jarraitzen dute hortz iraunkorretako txantxar mailek 7 eta 12 urterekin, eta osasun-adierazleak nabarmen hobetu dira 14 urterekin. Pozteko moduko datuak dira eta argi eta garbi erakusten dute PADI bere funtzioa betetzen ari dela erabiltzaileak programa amaitzeko adinera iristen direnean.

Hauek dira PADIren indarguneak: Eusko Jaurlaritzaren osasun-politiken barruan dago, eta hortz-asistentzia publikoa eskaintzen die haurrei; protokoloak osasunera eta prebentziora bideratuta daude; profesionalak aukeratzeko askatasuna ematen du, odontologo talde handi baten barruan (EAEen elkargoren bateko kide direnen erdia baino gehiago); ez dago zerbitzua eskuratzeko oztopo ekonomikorik (ekitatea); hortz iraunkorrek konpontzeko estaldura osoa eskaintzen du; eta kapitazio bidezko ordainketa-sistemak prebentzioa sustatzen du eta gastu-aurreikuspena ahalbidetzen du.

PADIk, osasun-helburu handinahitsuak lortu nahi dituzten sistema guztiek bezala (PADIren urteko estalduraren % 75 gainditzea eta 12 urteko haurren % 80k baino gehiagok txantxarrik ez izatea 2020an), badu oztoporik eta ahultasunik:

Urteroko erabilera maila geldituta dago oraindik ere (hiru haurretik batek ez du PADI ekitaldi bakoitzean erabiltzen). Paradoxikoki, txantxar kopurua nabarmen murriztu izana familiak dentistarengana joateko beharraz oso jabetuta ez egotearekin lotuta egon daiteke.

Bestalde, ikerketa epidemiologikoak deskribatzen du badela oraindik gradiente sozial bat txantxarren adierazleei dagokienez (ia txantxar kopuru bikoitza maila sozial baxuagoetan).

Aurreko bi eskasia horiei gehitu behar zaie konpontze-adierazleak behera egin duela 14 urterekin azken hamarkadan. Hein batean, urteko azterketara joaten ez diren talde horretako erabiltzaileen ehunekoak (% 34) justifika dezake hori. Nolanahi ere, ezin da onartu txantxarren herena baino gehiago tratatu gabe egotea. Kapitazioaren ezaugarriak direla eta, hitzartutako sarea ez da nahiko patologiaren bat duten eta, gainera, dentistarengana erregulartasunez joaten ez diren haurrak tratatzeko.

Egiaztatu denez, fisura-ixteko nabarmen gutxiago aplikatzen segitzen dira. Datu epidemiologikoen arabera, 7 urterekin behin-behineko hortzetako txantxar kopuruak gora egin duenez, odontologoak motibatu egin behar dira, prebentzio-neurri garrantzitsu hori are gehiago aplikatu dezaten.

ONDORIOAK.

- 1.-** 2020 urtean garatu dira 31 Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren ekitaldiak, eta EAEko haurren % 94k atera diote etekina programari 15 urte betetzean.
- 2.-** 120.301 haur artatu zituzten 2020an. Beste 61.042 haurrek ez zuten erabili (EAEn bizi diren 7 eta 15 urte arteko 191.830 neska-mutiletatik, 10tik 10ek).
- 3.-** 2020ko estaldura-ehunekoa % 62,71koa izan zen; azken hamarkadan baxuena, COVID-19 delako egoera epidemiologikoaren eraginak nabarmenki baldintzatuta. Edozein kasuan ere ez da 2013-2020 aldirako Osasun Planeko PADiren %75 urteko estaldura lortzearen helburua lortu.
- 4.-** Prestaziorako eskubidea duten 100 haurretik 3 Osakidetzaiko dentista publikoek artatu zituzten, eta 60 hitzartutako dentistek. Aldiz, 37 ez ziren urteko azterketara joan.
- 5.-** Artatutako haurren % 95,5 hitzartutako dentistek artatu dituzte. Osasun Sailak 4.945.548 euroko partida bat bideratu zuen horretarako (43,06 euro/haur).
- 6.-** Osakidetzaren kontsultetan zuzenean artatutako haurren kopurua murriztu egin da: 30.000 izan ziren 1990eko hamarkadaren erdian eta 8.000petik, berriz, azken ekitaldietan.
- 7.-** Haurren Hortzak Zaintzeko Programako fakultatibo-taldeko dentistek emandako asistentziak behar diren prebentzio-jarduerak eta tratamendu konpontzaileak barne hartzen ditu. Osakidetzaiko kontsultetako asistentziaren profilak erakusten du interbentzio prebentibo zein konpontzaile gehiago behar dituztenek erabiltzen dutela asistentzia.
- 8.-** Eusko Jaurlaritzak bultzatutako hortz-politikari esker, haurren hortz-osasunaren adierazleak onenetakoak dira gure inguruko herrialdeen artean, eta nabarmen hobetu da azken hamarkadan 14 urterekin txantxarrik ez duten haurren proportzioa % 74a izanik. Haurren Hortzak Zaintzeko Programako familiako dentistek ematen duten asistentziak asko lagundu du horretan.
- 9.-** 2020an, 1.015 dentistek osatzen dituzte Haurren Hortzak Zaintzeko Programako asistentzia-baliabideak. Dentistok 101 udalerritan (EAEko guztien % 40) dauden 850 hortz-klinikatakoak (25 Osakidetzarenak) dira.
- 10.-** Haurren hortzak zaintzeari buruzko apirilaren 24ko 118/1990 Dekretuak garatutako sistema eraginkorra eta efizientea izan da 31 urte hauetan zehar. Osasun-adierazleak nabarmen hobetu dira martxan jarria izan zenetik hona.
- 11.-** 2020 urtean lorturiko ia %63 estaldura-indizea lortzeak, pairatutako egoera epidemiologikoa kontuan izanda ere, dental asistentzia-zerbitzuen egonkortasuna bai eta euskal gehiengo familietan dentistarengana joateko finkatutako joera ere islatzen ditu.

I ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2020AN, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

ARABA

KOHOORTEAK	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUAK	GUZTIRA	KUOTA
2005	3.108	32	1.759	1.791	57,63%
2006	3.230	40	1.853	1.893	58,61%
2007	3.263	44	1.953	1.997	61,20%
2008	3.487	47	2.130	2.177	62,43%
2009	3.431	57	2.128	2.185	63,68%
2010	3.596	60	2.298	2.358	65,57%
2011	3.562	54	2.245	2.299	64,54%
2012	3.441	69	2.118	2.187	63,56%
2013	3.252	70	1.927	1.997	61,41%
ALAVA	30.370	473	18.411	18.884	62,18%

GIPUZKOA

KOHOORTEAK	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUAK	GUZTIRA	KUOTA
2005	7.309	449	3.447	3.896	53,30%
2006	7.496	514	3.611	4.125	55,03%
2007	7.510	481	3.921	4.402	58,62%
2008	7.577	521	4.044	4.565	60,25%
2009	7.508	518	4.024	4.542	60,50%
2010	7.566	506	4.062	4.568	60,38%
2011	7.350	447	3.862	4.309	58,63%
2012	7.199	486	3.866	4.352	60,45%
2013	6.534	445	3.399	3.844	58,83%
GIPUZKOA	66.049	4.367	34.236	38.603	58,45%

BIZKAIA

KOHOORTEAK	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUAK	GUZTIRA	KUOTA
2005	10.653	63	6.543	6.606	62,01%
2006	10.516	62	6.658	6.720	63,90%
2007	10.698	58	6.949	7.007	65,50%
2008	11.100	78	7.440	7.518	67,73%
2009	10.633	62	7.082	7.144	67,19%
2010	10.731	76	7.185	7.261	67,66%
2011	10.762	74	7.161	7.235	67,23%
2012	10.393	78	6.880	6.958	66,95%
2013	9.925	66	6.299	6.365	64,13%
BIZKAIA	95.411	617	62.197	62.814	65,84%

C.A.P.V.

KOHOORTEAK	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUAK	GUZTIRA	KUOTA
2005	21.070	544	11.749	12.293	58,34%
2006	21.242	616	12.122	12.738	59,97%
2007	21.471	583	12.823	13.406	62,44%
2008	22.164	646	13.614	14.260	64,34%
2009	21.572	637	13.234	13.871	64,30%
2010	21.893	642	13.545	14.187	64,80%
2011	21.674	575	13.268	13.843	63,87%
2012	21.033	633	12.864	13.497	64,17%
2013	19.711	581	11.625	12.206	61,92%
C.A.P.V.	191.830	5.457	114.844	120.301	62,71%

II ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2020AN, UDALERRIAREN ARABERA (Araba)

UDALERRIA	Biztanleria	Osakidetza	Hitzartua	Artatuak	%
AMURRIO	956	1	653	654	68,41%
AGURAIN-SALVATIERRA	589	6	308	314	53,31%
AÑANA	14	0	6	6	42,86%
ARAMAIO	144	2	49	51	35,42%
ARMIÑÓN	31	0	20	20	64,52%
ARRAIA-MAEZTU	70	0	39	39	55,71%
ARRATZUA-UBARRUNDIA	91	2	52	54	59,34%
ARTZINIEGA	219	1	160	161	73,52%
ASPARRENA	142	2	82	84	59,15%
AYALA-AIARA	347	0	243	243	70,03%
BAÑOS DE EBRO-MAÑUETA	14	0	0	0	0,00%
BARRUNDIA	85	0	36	36	42,35%
BERANTEVILLA	46	0	22	22	47,83%
BERNEDO	39	0	16	16	41,03%
CAMPEZO-KANPEZU	89	1	55	56	62,92%
DULANTZI-ALEGRÍA	438	3	319	322	73,52%
ELBURGO-BURGELU	61	0	38	38	62,30%
ELCIEGO	103	2	9	11	10,68%
ELVILLAR-BILAR	22	0	4	4	18,18%
ERRIBERAGOITIA-RIBERA ALTA	78	0	48	48	61,54%
HARANA-VALLE DE ARANA	9	0	6	6	66,67%
IRUÑA OKA-IRUÑA DE OCA	459	5	282	287	62,53%
IRURAZ-GAUNA	43	0	31	31	72,09%
KRIPAN	15	0	1	1	6,67%
KUARTANGO	23	0	18	18	78,26%
LABASTIDA-BASTIDA	178	9	55	64	35,96%
LAGRÁN	7	0	4	4	57,14%
LAGUARDIA	123	5	19	24	19,51%
LANCIEGO-LANTZIEGO	77	0	19	19	24,68%
LANTARÓN	64	0	21	21	32,81%
LAPUEBLA DE LABARCA	79	0	14	14	17,72%
LAUDIO-LLODIO	1.468	3	1.027	1.030	70,16%
LEGUTIO	185	1	108	109	58,92%
LEZA	23	0	7	7	30,43%
MOREDA DE ÁLAVA-MOREDA ARABA	11	0	1	1	9,09%
NAVARIDAS	14	0	0	0	0,00%
OKONDO	129	0	99	99	76,74%
OYÓN-OION	447	1	144	145	32,44%
PEÑACERRADA-URIZAHARRA	11	0	7	7	63,64%
RIBERA BAJA-ERRIBERA BEITIA	197	6	62	68	34,52%
SAMANIEGO	16	0	6	6	37,50%
SAN MILLÁN-DONEMILIAGA	63	0	42	42	66,67%
URKABUSTAIZ	163	3	90	93	57,06%
VALDEGOVÍA-GAUBEA	57	2	32	34	59,65%
VILLABUENA DE ÁLAVA-ESKUERNAGA	16	0	6	6	37,50%
VITORIA-GASTEIZ	22.450	417	13.868	14.285	63,63%
YÉCORA-IEKORA	25	0	10	10	40,00%
ZALDUONDO	14	0	7	7	50,00%
ZAMBRANA	37	0	16	16	43,24%
ZIGOITIA	166	1	97	98	59,04%
ZUIA	223	0	153	153	68,61%
ARABA	30.370	473	18.411	18.884	62,18%

II ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2020AN, UDALERRIAREN ARABERA: BIZKAIA

UDALERRIA	Biztanleria	Osakidetza	Hitzartuak	Artatuak	%
ABADIÑO	823	90	471	561	68,17%
ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA	825	0	561	561	68,00%
AJANGIZ	38	0	25	25	65,79%
ALONSOTEGI	250	0	171	171	68,40%
AMOREBIETA-ETXANO	1.822	2	1.291	1.293	70,97%
AMOROTO	36	0	17	17	47,22%
ARAKALDO	26	0	13	13	50,00%
ARANTZAZU	46	0	28	28	60,87%
AREATZA	107	0	55	55	51,40%
ARRANKUDIAGA	124	2	87	89	71,77%
ARRATZU	38	0	27	27	71,05%
ARRIETA	50	0	35	35	70,00%
ARRIGORRIAGA	1.174	5	798	803	68,40%
ARTEA	74	0	59	59	79,73%
ARTZENTALES	47	1	25	26	55,32%
ATXONDO	111	1	93	94	84,68%
AULESTI	55	0	32	32	58,18%
BAKIO	266	0	149	149	56,02%
BALMASEDA	690	0	433	433	62,75%
BARAKALDO	8.274	26	5.588	5.614	67,85%
BARRIKA	147	0	96	96	65,31%
BASAURI	2.977	32	2.012	2.044	68,66%
BEDIA	74	0	53	53	71,62%
BERANGO	841	2	578	580	68,97%
BERMEO	1.420	0	798	798	56,20%
BERRIATUA	139	0	77	77	55,40%
BERRIZ	534	20	372	392	73,41%
BILBAO	25.536	152	15.916	16.068	62,92%
BUSTURIA	140	0	90	90	64,29%
DERIO	656	0	469	469	71,49%
DIMA	160	0	111	111	69,38%
DURANGO	2.793	16	1.887	1.903	68,13%
EA	46	0	27	27	58,70%
ELANTXOBE	22	0	15	15	68,18%
ELORRIO	671	5	470	475	70,79%
ERANDIO	2.195	6	1.456	1.462	66,61%
EREÑO	18	0	12	12	66,67%
ERMUA	1.256	70	814	884	70,38%
ERRIGOITI	40	0	27	27	67,50%
ETXEBARRI	1.452	3	1.065	1.068	73,55%
ETXEBARRIA	65	0	44	44	67,69%
FORUA	62	0	50	50	80,65%
FRUIZ	79	0	55	55	69,62%
GALDAKAO	2.284	2	1.492	1.494	65,41%
GALDAMES	68	0	44	44	64,71%
GAMIZ-FIKA	99	0	53	53	53,54%
GARAI	36	0	25	25	69,44%
GATIKA	172	0	126	126	73,26%
GAUTEGIZ ARTEAGA	65	0	44	44	67,69%
GERNIKA-LUMO	1.589	0	1.169	1.169	73,57%
GETXO	6.175	6	4.505	4.511	73,05%
GIZABURUAGA	18	1	9	10	55,56%
GORDEXOLA	161	0	111	111	68,94%
GORLIZ	605	1	359	360	59,50%
GÜEÑES	624	0	447	447	71,63%
IBARRANGELU	33	0	24	24	72,73%
IGORRE	443	0	247	247	55,76%
ISPASTER	98	0	60	60	61,22%

II ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2020AN, UDALERRIAREN ARABERA: BIZKAIA (jarr.)

IURRETA	345	1	207	208	60,29%
IZURTZA	23	0	15	15	65,22%
KARRANTZA HARANA-VALLE DE CARRANZA	157	0	72	72	45,86%
KORTEZUBI	51	0	42	42	82,35%
LANESTOSA	13	0	4	4	30,77%
LARRABETZU	230	1	167	168	73,04%
LAUKIZ	139	0	74	74	53,24%
LEIOA	2.886	4	1.969	1.973	68,36%
LEKEITIO	622	0	400	400	64,31%
LEMOA	378	0	238	238	62,96%
LEMOIZ	127	0	79	79	62,20%
LEZAMA	225	0	147	147	65,33%
LOIU	196	2	108	110	56,12%
MALLABIA	100	5	65	70	70,00%
MAÑARIA	60	3	37	40	66,67%
MARKINA-XEMEIN	498	0	285	285	57,23%
MARURI-JATABE	95	0	62	62	65,26%
MENDATA	43	0	29	29	67,44%
MENDEXA	44	0	17	17	38,64%
MEÑAKA	85	0	58	58	68,24%
MORGA	23	0	18	18	78,26%
MUNDAKA	151	0	91	91	60,26%
MUNGIA	1.923	0	1.348	1.348	70,10%
MUNITIBAR-ARBATZEGI GERRIKAITZ	27	1	18	19	70,37%
MURUETA	32	0	22	22	68,75%
MUSKIZ	709	0	434	434	61,21%
MUXIKA	152	0	114	114	75,00%
NABARNIZ	17	0	13	13	76,47%
ONDARROA	625	3	275	278	44,48%
OROZKO	257	0	163	163	63,42%
ORTUELLA	662	9	432	441	66,62%
OTXANDIO	150	0	95	95	63,33%
PLENTZIA	385	0	242	242	62,86%
PORTUGALETE	3.304	11	2.103	2.114	63,98%
SANTURTZI	3.710	18	2.252	2.270	61,19%
SESTAO	2.082	104	1.235	1.339	64,31%
SONDIKA	458	1	287	288	62,88%
SOPELA	1.440	1	1.079	1.080	75,00%
SOPUERTA	211	0	138	138	65,40%
SUKARRIETA	22	0	13	13	59,09%
TRUCIOS-TURTZIOZ	26	0	7	7	26,92%
UBIDE	16	0	12	12	75,00%
UGAO-MIRABALLES	341	0	252	252	73,90%
URDULIZ	440	0	292	292	66,36%
URDUÑA-ORDUÑA	363	0	226	226	62,26%
VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN	993	3	682	685	68,98%
ZALDIBAR	294	5	177	182	61,90%
ZALLA	766	0	399	399	52,09%
ZAMUDIO	331	0	209	209	63,14%
ZARATAMO	144	0	84	84	58,33%
ZEANURI	110	0	75	75	68,18%
ZEBERIO	100	0	76	76	76,00%
ZIERBENA	123	2	69	71	57,72%
ZIORTZA-BOLIBAR	38	0	23	23	60,53%
BIZKAIA	95.411	617	62.197	62.814	65,84%

II ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2020AN, UDALERRIAREN ARABERA: GIPUZKOA

UDALERRIA	Biztanleria	Osakidetza	Hitzartua	Artatuak	%
ABALTZISKETA	30	6	9	15	50,00%
ADUNA	74	0	44	44	59,46%
AIA	233	4	128	132	56,65%
AIZARNAZABAL	105	0	59	59	56,19%
ALBIZTUR	42	3	33	36	85,71%
ALEGIA	195	31	79	110	56,41%
ALKIZA	52	4	25	29	55,77%
ALTZAGA	32	0	12	12	37,50%
ALTZO	47	3	27	30	63,83%
AMEZKETA	93	1	48	49	52,69%
ANDOAIN	1.525	18	909	927	60,79%
ANOETA	206	15	109	124	60,19%
ANTZUOLA	271	1	104	105	38,75%
ARAMA	25	0	10	10	40,00%
ARETXABALETA	750	6	458	464	61,87%
ARRASATE-MONDRAGÓN	1.837	37	869	906	49,32%
ASTEASU	191	3	111	114	59,69%
ASTIGARRAGA	703	1	461	462	65,72%
ATAUN	233	20	85	105	45,06%
AZKOITIA	1.397	32	862	894	63,99%
AZPEITIA	1.598	114	760	874	54,69%
BALIARRAIN	24	3	4	7	29,17%
BEASAIN	1.500	236	458	694	46,27%
BEIZAMA	11	0	5	5	45,45%
BELAUNTZA	16	4	4	8	50,00%
BERASTEGI	110	12	51	63	57,27%
BERGARA	1.308	8	597	605	46,25%
BERROBI	67	5	39	44	65,67%
BIDANIA-GOITATZ	62	6	24	30	48,39%
DEBA	489	18	327	345	70,55%
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	14.076	619	7.749	8.368	59,45%
EIBAR	2.457	569	1.091	1.660	67,56%
ELDUAIN	37	6	16	22	59,46%
ELGETA	113	11	67	78	69,03%
ELGOIBAR	1.198	48	787	835	69,70%
ERRENTERIA	3.582	552	1.618	2.170	60,58%
ERREZIL	69	0	20	20	28,99%
ESKORIATZA	411	3	179	182	44,28%
EZKIO-ITSASO	49	1	26	27	55,10%
GABIRIA	43	3	19	22	51,16%
GAINTZA	8	1	5	6	75,00%
GAZTELU	14	0	7	7	50,00%
GETARIA	246	0	157	157	63,82%
HERNANI	1.834	17	1.049	1.066	58,12%
HERNIALDE	27	7	12	19	70,37%
HONDARRIBIA	1.645	126	777	903	54,89%
IBARRA	430	57	195	252	58,60%
IDIAZABAL	276	43	108	151	54,71%
IKAZTEGIETA	42	4	14	18	42,86%
IRUN	5.313	619	2.555	3.174	59,74%
IRURA	257	22	146	168	65,37%
ITSASONDO	92	8	45	53	57,61%

II ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2020AN, UDALERRIAREN ARABERA: GIPUZKOA (jarr.)

LARRAUL	37	1	24	25	67,57%
LASARTE-ORIA	1.681	32	802	834	49,61%
LAZKAO	647	28	349	377	58,27%
LEABURU	40	3	15	18	45,00%
LEGAZPI	735	10	451	461	62,72%
LEGORRETA	156	6	57	63	40,38%
LEINTZ GATZAGA	19	0	12	12	63,16%
LEZO	544	23	319	342	62,87%
LIZARTZA	65	8	20	28	43,08%
MENDARO	281	23	176	199	70,82%
MUTILOA	34	2	15	17	50,00%
MUTRIKU	501	22	264	286	57,09%
OIARTZUN	1.042	50	631	681	65,36%
OLABERRIA	81	5	40	45	55,56%
OÑATI	1.200	1	652	653	54,42%
ORDIZIA	1.017	39	563	602	59,19%
ORENDAIN	29	0	14	14	48,28%
OREXA	18	1	11	12	66,67%
ORIO	716	7	341	348	48,60%
ORMAIZTEGI	148	16	47	63	42,57%
PASAIA	1.414	60	682	742	52,48%
SEGURA	187	21	51	72	38,50%
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	368	70	143	213	57,88%
TOLOSA	1.841	305	791	1.096	59,53%
URNIETA	612	2	389	391	63,89%
URRETXU	700	75	337	412	58,86%
USURBIL	705	4	443	447	63,40%
VILLABONA	592	44	322	366	61,82%
ZALDIBIA	155	15	44	59	38,06%
ZARAUTZ	2.153	49	1.334	1.383	64,24%
ZEGAMA	188	24	55	79	42,02%
ZERAIN	30	0	6	6	20,00%
ZESTOA	435	9	217	226	51,95%
ZIZURKIL	301	24	150	174	57,81%
ZUMAIA	1.061	1	687	688	64,84%
ZUMARRAGA	871	80	429	509	58,44%
GIPUZKOA	66.049	4.367	34.236	38.603	58,45%